

Lujanbio, Ordorka, Etxenike, Alberdi eta Labaien, *Egunkaria*-ren itxieraren zazpigarren urteurreneko ekitaldian. LANDER F. ARROIA/BE / ARGAZKI PRESS

Ramon Labaien euskaltzalea eta abertzalea izan zen, ororen gainetik; oso kritikoa, langilea, kulturari jantzia eta bizia; estimu handia izan diote ezagutu zutenek.

«Gizon «jeniala» zen»

A. Mujika - U. Urkizu

Ramon Labaienek sekulako arrastoa utzi du ezagutu zutenengan. Euskal Herri euskaldun baten zerbitzura zegoen gizona zela diote denek, alderdikierien gainetik; egokien iruditzen zitzaiona egiten zuela, oso kritikoa eta zorrotza zela, umore onekoa, eta langilea. Azkenera arte, egunak asko egiteko eman zion, merezi zuela pentsatzen zuten hura.

PEDRO MIGUEL ETXENIKE

Jauriaritzako Hezkuntza sailburu ohia

«Mundura irekita zegoen, sustraiak ongi finkatuta»

«Egun oso tristea» izan zen atzokoa Etxenikerentzat, «lagun mina» galdu duelako, bidelaguna, Jauriaritzako lehen gobernuan bizi izandakoetatik gaur arte. Frontoian zegoela jaso zuen albistea, atzo goizean, eta «ezin buelta emanda» zegoen arratsaldean, agur esan gabe joan bai-

tzaio. Oronen gainetik «jeniala» zela uste du. «Gizon instituzionala zen, kulturak eta euskarak beharrezkoak zituen instituzioen alde lan asko egin zuen». «Kulturaz oso jantzia» zen, «kultura unibertsala eta etxekoa maite zuten». Munduan gertatzen ari zen guztiaren berri jakitea gustatzen zitzaion, sakonetik. «Euskal Herriari bere dohain oro ekarri zizkion, eta ditugun gauza asko berari zor dizkiogu». Familia gizona zen, «senarra eta aita. Gas-

teizen bakarrik zegoen orduan Etxenike, eta ordu asko igarotzen zituzten elkarrekin. Bizipen haiek «ahaztezinak» zaizkio.

JOSE MARI OTERMIN

Euskadi Irratiko zuzendari ohia

«Diru urri haietatik zati bat EITBren sorrera bideratzeko gogoz aritu zen»

Labaienek EITBren sorreran egindako ahalegina «oso-oso garrantzitsua» izan zen, Oterminen

iritziz. Batetik, jendea eta lantalde bat lanean jarri zuen, eta, bestetik, «ekonomia egoera zaila zen arren, Jauriaritzaren diru urri haietatik zati bat EITBren sorrera bideratzeko gogoz aritu zen. Bultzagilea izan zen horretan», esan du Oterminen.

JOSEBA EGIBAR

EAJko GBBko presidentea

«Erabat konprometitu eta oparoa izan da haren ibilbidea»

Joseba Egibar azken hilabeteotako gaixoardian egon da Labaienekin, eta, uste duenez, «Labaienek bazekien zer zetorkion». Gaixotasunak ahuldu duen arte jardun da lanean. Ibilbide «erabat konprometitu eta oparoa» izan da. «Euskara, kultura, komunikabideak, ingurumena... denak landu zituen». Azkenean, «herrigintza» egin zuen, eta erakutsi «herri bat maitatzeko mila modu» daudela. Joan da, «baina hark egindakoa hortxe geratuko da, belaunaldi berriek ezagut dezaten».

JOAN MARI TORREALDAI

Jakin-eko zuzendaria

«Haren leialtasuna ez zen alderdiarekiko, aberriarekiko baizik»

«Abertzalea eta oso euskaltzalea» zela nabarmendu du Joan Mari Torrealdaik, «abertzale oso kritikoa, oso koherentea ere bai; izaeraz, liberala». EAJ alderdiarekiko ere «oso kritikoa» zen, eta bere «leialtasuna ez zen alderdiarekiko, aberriarekiko baizik». Gogoa du, besteak beste, min handia eman ziola Labaieni *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean, eta auzipetuen aldeko taldea sortzeko proposamena berak egin zien auzipetuei. «Biktimak ginela pentsatzen zuten, eta herritarrek jarri behar zutela auzipetuei eskatzen

Ramon Labaien, leiala eta heterodoxoa

Iritzia

Paulo Agirrebaltzategi

Hasteko, aitortu behar dut astindu handia eman didala Ramon Labaienen heriotzaren berriak. Jakin bagenekien barruan zuten gaitzarena; eta orainsu esana zidan gainera Klo emazteak, pattal zebilela gizona; baina nekez sartzen zaizu horrelakoetan buruan, hain azkar — eta hain bat-batean — joan behar duenik lagunak. Izan ere, orainsu arto osasun biziko eta miresgarri bizkor ezagutu dugu Ramon, bere 80tik gorako urtetan, autoa hartu, karabana eta guzti, eta Europan zehar bere emaztearekin bidaiatzeko gauza izan dena, edozein gazte ibiltariaren antzera. Kemena behar! Gorputzekoa eta burukoa.

Ramoni bidaiatzera eragin, berri, nolabaiteko ibiltzeko grinak eta bazterrek ikusteko minak baino areago, bere historia eta kultur zaletasun apartekoak eragiten ziola uste dut: liburuetatik jasotako eta bizitza luzean ikasitako historiak eta gertaera historikoek utzitako ondarea bertatik ikusi beharrak. Oso irakurria, ikasia eta jakite zabalez jantzia baitzen Ramon, lagun arteko harremanetan eta edonolako solasalditan agerian uzten zuenez. Kultur gizon landua zen, liburuetan ikasitakoak eta museoetan ikusitakoak galbahe kritikotik pasatzen zekiena eta bere buruko eskemetan kokatzen. Gizon jakintsua galdu dugu; jakintza eta jakinduria handikoa.

Kritiko izatea, bere barruan eta izaeran zeraman Ramonek. Na-

barmendu ere, bi ezaugarri nabarmendu nahi nituzke haren bizitzan: leialtasun sendoa eta kritikotasun agerikoa.

Ezagunak dira Labaienen bizitza osoko ideia politiko nagusiak: Euskal Herria eta Euskara: biak hizki larriz idatzita. Euskal abertzalea izan da, Euskal Herri euskalduna eraikitzeko. Horretarako euskal abertzaleen batasungueak bilatu eta bultzatu izan ditu nonahiko interes partzialen —partidisten— gainetik. Bete izan dituen kargu eta ardura publikoak Euskal Herri euskaldunaren zerbitzura jarri izan dituela esan ahal dugu, ados egon ala ez beti haren neurri eta jokabide politikoekin. EAJ bere alderdi politikoa ere Euskal Herri euskaldunaren zerbitzurako behar duela defenditu izan du, alderdi eta

botere-interesen gainetik; eta leial jarraitu du barruko militantzian, barne-hausturak gertatu direnean ere; baina beti aski libre eta kritikoa, bere irizpide eta jokabideetan, Euskal Alderdiaren gainetik Euskal Herriak behar duelakoan. Euskal independentista zen Labaien, buruz eta bihotzez; Independentistak mugimendu herritarrean bere izena emana zuen gainera, euskal independentista guztiak batzekotan... Aurtengo Aberri Egunean Mugimenduak Iruñera egindako deiari muzin egingo zion, ordea, deialdiaren moduari edo kontrapuntu kritikoa agertu nahian —atsegin bezala gogoratzen dut aurreko Aberri Egunean berarekin Baigorri emandako eguna, Independentistak mugimenduak berberak deituta—.

Idea eta jokabide politikoetan abertzale eta euskaltzale bezala, erlijiozkoetan kristau eta eliztar izan da Labaien, baina espiritu kritikoz funtsezko leialtasuneari. Politikan alderdikoa zen bezala, baina ez alderdikoi, erlijiozkoan ere eliztar zen baina ez elizkoi, are gutxiago «eklesiastiko» —ortodoxia baino bereagoa izan duela uste dut Labaienek heterodoxia, bai politikaren bai erlijioaren alorrean—. Behin baino gehiagotan topo egin izan dugu Grosseko bion parrokiari, Aste Santuko elizkizumetan nahiz igandeezko mezatan. Atsegin bezala gogoratzen ditut ondorengo solasaldi luzeak, elizaren kanpoaldian batzuetan; eta tabernaren batean, bestetan, «ardo espeziala» eta pintxoren bat eskatu ondoren —ia beti berak gonbidatuta, fraideak pobre-

↓ Ereazioak

«Euskaltzalea zen, eta kultura izugarria zuen; zeukan lanerako gaitasunagatik pentsatu genuen Kultura sailburu egokia zela. Sintonia oso ona izan genuen hasieratik, eta lanerako lagun ona izateaz gain, elkarbizitzarako ere hala zen».

CARLOS GARAIKOETXEA
Jauritzako lehendakari ohia

1993an HABEren eta AEKren garairik zailenetan urteetako ezin ulertuak arnaitu, eta AEKri errekonozimendua eman beharra azpimarratzen zuen, argi baitzuen denaren gainetik euskaren etorkizuna zegoela eta etorkizun euskalduna ziurtatzeko AEKren egitekoa ezinbestekoa zela. EAUKoa izan arren, ez zuen arazorik AEK besteko, euskara jarritako erakunde eta alderdien gainetik».

JOANMARI LARRATE
AEK-ko Gipuzkoako arduradun ohia

«Euskaldun eta abertzale eredugarri bat galdu du Euskal Herriak, Donostiak, alkatete ohi eredugarria. Oso ongi ezagutzen nuen Labaien, alkatetza hartu aurretik, eta berarekin asko ikasi nuen. Asko estimatzen nuen. Oso pertsona irekia eta ona zen».

JUAN KARLOS IZAGIRRE
Donostiako alkatea

«Esaten zuen argi izan behar zela zein zen arerioa, zein zegoen kontra. Ez zuen arazorik, ezkerreko zein eskuineko abertzaleekin, bazekielako zein zegoen bere kontra. Aberri Egunean abertzaleok 'arlotearena' egiten ari ginela esaten zuen».

IÑAKI ZUBILLAGA
Euskaltzalea eta laguna

ak omen direla eta — Parada lasai ederra, euskal gizarte eta politikako eta Eliza hurbileko eta urrunagoko gorabeherak — samingarriak nahiz pozgarriak — gogoratu, astindu eta «konponbideratzeko!» Ez beti adostasunean, jakina!

Eta honetara ezker, Ramon Labaienen leialtasun pertsonala goraiatu nahi dut, harekin harremanik izan duen edonork egiaztatu eta gozatu ahal izan duena seguruenik: kontrako iritzi eta guzti, beti leial. Eta hala da, zeren eta Labaienekin adostasun osoko solasa eta elkarrizketa ezinezkoak baitziren, gehienetan bazuelako zure iruzkin edo iritzari kontrajartzeko desadostasuzko kontrapuntua: gogaikarria batzuetan, aberasgarria ia beti.

Kritikoa eta heterodoxoa zinezko eta funtsezko leialtasunean: horra orain samintasan handiz gogoratzen dugun Ramon Labaien. Egun Handira arte!

zitzaien dirua». Dirua biltzen jardun zuen Labaienek Egunkaria Epaiketa ekinbide taldean. Makina bat bazkari egin zituzten elkarrekin. «Oso dibertigarria» zen, bertsolari plantan ere ederki aritzen zen. «Anekdotak asko zituen; kultura handiko gizona».

MIREN AZKARATE

Eusko Jauritzako Kultura sailburu ohia

«1936ko gerraren aurretik euskal kulturaren alde lan egin zutenak gogoan zituen»

Euskal nazio baten aldeko egitasmoetan «beti konprometitua»

izan da Labaien, Azkarateren arabera. «Bere entusiasmoari azken unera arte eutsi dio, eta zubigintzan pertsona garrantzitsua izan da». Azkaratek gogoan duenez, 1936ko gerraren aurretik euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin zutenak ere gogoan zituen, «kontziente zen aurreko ondarea zein zen». Bestalde, Azkarateren ustez, azken ordura arte bere buruaren jabe izan da, eta azkeneko urteetan kapaz zen garai bateko gauzak gogoratzeko eta transmititzeko. «Labaienek errenazimendu garaiko espiritua zuen».

IÑIGO ALBERDI

Euskadiko Orkestrako zuzendari nagusia

«Abertzaletasun konprometitutik ikusi zuen orkestrak balio handia zuela»

Alberdik nabarmendu du Labaien «kultura pertsona izanda, eta gizon jantzia, abertzaletasun konprometitutik ikusi zuen orkestra bat izateak balio handia zuela». Halaber, Labaienek maiz esaten zuen esaldi bat gogoratu du: «Herri batek, herri bat izango bada, bi gauza izan behar ditu: orkestra indartsu bat eta hegazkin konpainia bat».

TXUTXI ARIZNABARRETA

Independentistak sareko kidea

«Beti zegoen prest mobilizazioetan eta parte hartzeko»

Independentistak sarearen sortzaileetako bat izan zen Labaien, 2010ean, eta ordutik «oso modu aktiboan» hartu zuen parte. «Beti zegoen prest mobilizazioetan eta parte hartzeko». Bileretan egiten zituen «ekarpenak» estimu handian ditu. «Esperientzia eta aberastasuna» ekartzen zituen. «Oso samurra» zen jendearekin, eta «jario gozokoa» hizketan.



Zatof OSOAr: dena duzu, gutxiago ordainduta.

OSOArekin soilik nabiga dezakezu abiadura handieneko konexio batekin prezio honen truke.



BENETAKO
120
MEGAKO
INTERNET

19'9€
/HIL
SOILIK



Kontratatu 1717an edo www.euskaltel.com-en
Bezero berrientzat eta gure befiko bezeroentzat

Etxean Zuzit bidezko Internet daukaten betiko bezero nahiz bezero berrientzako abantaila eskusibo bat da OSOA, eta Euskaltelekin mugikorra eta Premium TBA kontratatzeko edo kontratua izateko eskuratu da. BEZA ez dago sartuta.